

Batzorde antolatzailea

Arturo Apraiz
Geodinamika Saila

Ane García-Artola
Estratigrafia eta Paleontologia Saila

Karmele Urtiaga
Mineralogia eta Petrologia Saila

Zientzia eta Teknologia Fakultatea
UPV/EHU


Entitate laguntzaileak



EVE | Ente Vasco
de la Energía



Euskal Herriko Geologiako XI. Olinpiada 2020ko Otsailak 14



Argazkiak: Flysch Beltzeko hainbat ezaugarri geologiko

Izen-ematea otsailaren 12arte
Proba teorikoa, praktikoa eta
finala Otsailak 14



ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

Helburuak

Lurraren gainean bizi garen arren, oraindik ere, gizateriaren gehiengo batentzat oso ezezaguna da. Geologiaren laguntzarekin gure Planeta ezagutzen eta bertan gertatu eta gertatzen diren prozesuak ulertzen ikasten dugu. Geologiaren Olinpiada honekin DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleengan zientzia honen ezagupena garatu nahi dugu, bere aplikazioak gaur egun duten eta etorkizunean izan dezakeen eraginaz ohar daitezzen.



Parte-hartzaileak

Parte hartu ahal izango dute 2019/2020 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko eta inguruko erkidegoko DBHko 4. mailako edo batxilerran matrikulatutako ikasleak, 19 urte bete ez dutenak.

Izen-ematea

Parte hartu nahi duten ikastetxeek izena eman dezakete edo zuzenean eskaera-orri bat bidali (arturo.apraiz@ehu.eus) posta elektronikoara. Eskaera-orrian agertu behar diren datuak ondorengoak dira: ikasleen eta irakaslearen izen-abizenak eta NAN zenbakia, ikastegiko izena eta helbidea, harremanetarako e-mail bat eta ikastetxeko zuzendariaren oniritzia ere.

Eskaera-orria posta arruntez ere bidali daiteke hurrengo helbidera:

Arturo Apraiz
Geodinamika Saila
Zientzia eta Teknologia Fakultatea. UPV/EHU Sarriena auzoa z.g.
48940 Leioa (Bizkaia)

Izen-emateko epea 2020ko otsailak 14an bukatuko da

Garapena

Proba teorikoan DBH-ko laugarren mailako eta Batxilergoko edukietatik ateratako 50 test-moduko galderak izango dira. Proba praktikoa 12 laginekin osatuta egongo da eta arroka, mineral eta fosil ezberdinak identifikatu beharko dira. Galderak erantzun bakuneko test-modukoak izango dira.

Ondoren, atsedenaldi baten ostean, emaitz onenak lortu dituzten 5 ikasle aukeratuko dira eta galdera-erantzunen joku bat egingo da parte hartu duten ikasle guztien aurrean. Denei galdera berdinak egingo zaizkie eta akatsak batu egingo dira. 5 akats egiten duen ikaslea eliminatu egingo da, ikasle bakarra gelditu arte.

Hurrengo urratsak

Txapeldunak Euskadi ordezkatzeko du **apirilaren 6an** Cuencan egingo den Olinpiadako fase nazionalan. Lau irabazleak **Daegun (Hego Korea) abuztuaren 26tik irailaren 3ra** burutuko diren olinpiada internazionalan hartuko dute parte.

Proben tokia eta data:

Tokia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea UPV/EHU. Leioako Kanpusa. Sarriena auzoa z.g. Leioa (Bizkaia).

Data: 2020ko otsailak 14. Atal teorikoa (10:00), praktikoa (10:45), eta eliminazio-jokua (12:00).

Sariak

Olinpiada irabazten duten ikasleek, Cuencan **martxoak 30an** ospatuko den, Olinpiadako fase nazionalera joateko aukera izango dute gasturik gabe. **Geogarapenek** lehen hiru ikasleei eta beraiekin joan daitezken beste bi pertsoneri Euskal Kostaldeko Geoparkeko flysch-a ikusteko itsasontziz bisita gidatua eskaintzen die. **Euskal Herriko meatzaritzaren museoak** sarrerak banatuko ditu partaideen artean. **Energiaren Euskal Enteak** (EVE) propagandazko kamisetak eta poltsak banatuko ditu partaideen artean. Gainera, Zientzia eta Teknologia Fakultateak diploma bat emango die parte hartu duten ikasle guztiei.